

Matrioskaren bihotz akustikoa

TRANSMITTITZEN DUEN lasaitasuna ikusita harritu egiten du diskoa lau egunetan grabatua dela jakiteak, azkar antzean beraz. Hala aitortu du Saioa Garinek berak, ondo aprobetxatutako lau egun izan zirela, aurrenekoan berak gitarra eta ahotsarenak egin zituela eta ondoren etorri zirela Gorka Hermosa akordeoiarekin eta Joseba Baleztena gitarra elektrikoarekin. Emaizta: folk amerikarrean oinarritutako hamaika kantu, ingelesez eta euskaraz abestuak.

Bigarren lana du Saioak. Moonpalace-ekin kaleratu zuen aurrekoa ere (*Particular land*, 2007) eta, hau esatea klixea izan daitekeen arren, nabaritzen zen gustu handiko eskua zegoela kantuen atzean. *Matrioska heart* horren baieztapena da, baina zer bait gehiago ere bai, ez baitu alferrik izen hori diskoak: pappin errusiarra bezala, entzunaldi bakoitzean sorpresa berrietarako bidea irekitzen du.

Donostiako Okendo kultur etxean eskaini duen kontzertuaren ondoren ari gara bera-ekin hizketan eta atera den aurreneko gaiak musikaren mamiarekin baino, azalarekin du zerikusia, diskoaren azalarekin zehazki —orri hau ilustratzen duena—. “Juanraren kontua da hori” azaldu du. Moonpalace Recordseko arduradunak diseinu ederra prestatu dio CDari, euskarriari berari balioa ematen diona mp3-en garaiotan.

Disko barrura sartuta, Saioak azaldu duenez kantu hauetako batzuk ateratzen hasita zegoen aurreko diskoa argitaratu zenerako eta hitzetarako ideiak ere landuta zituen. Aurrekoan ez bezala ordea, instrumentu gehiago daude orain-goan, gitarra eta ahotsa janzteko. Zergatik? “Bakarrik aritzeak badauka bere xarma, baina aldi berean hutsunea ere bai. Ona da, jendaurrean biluzten zarelako eta zu bakarrik zaude hor; taldean berriz, konpartitu egiten duzu besteekin”. Sexty Sexers taldeko

Gitarra bat, ahotsa, armonika bat, akordeoia eta punteo elektriko batzuk, zergatik ez? Disko handi baten historia da; disko txiki batena ere bai; nondik begiratzen diozun. Txikiaren detailea eta handiaren osotasuna, biak ditu Saioaren *Matrioska heart*-ek. Beasaingo Moonpalace Records-ek argitaratu berri du.

GORKA BEREZIARTUA

Joseba Baleztenaren gitarra elektrikoak bestelako ukitua eman die hiru abestiri. Saioak diskoa irekitzen duen *Hey river* kantuan Baleztenaren *slide*-a sartzeak ematen dion blues soinua nabarmendu du: “Mississippin jotako kantua dela ematen du”. Gorka Hermosaren akordeoiak berriz, hitz egiten daki. “Konbertsazio modukoa dago diskoan. Abestiak entzun eta esan zuen ‘akorde hauei zer sartuko diet intentsitatea emateko?’. Eta horixe eman dio, intentsitatea”. Emaizaren

kalitatea ikusita taldea osatzeko tentazioa gertatzen da. Disko hau entzutean bateria eta baxua sartu zitezkeela pentsatu du eta ez du baztertzeko aurrerago jende gehiagorekin aritzea.

Hiru kantu daude euskaraz eginda. *Entzun* aldizkarian joan den urtean eskainitako elkarriketa batean azaldu zuenez, erosoago sentitzen da hitzak ingelesez egiten. “Euskaldun zaharra naiz, ez dut erdaraz hitz egiten, baina folk amerikarra egiten dut, ingelesa ondo datorkio berez”. Hizkuntzak ematen duen *feedback* ere nabarmendu du ordea. Madrilgo Ladyfest-en jo berri, euskaraz abesten dituen kantuekin zer bait bitxia nabaritu du, entzuleek zer abesten zuen ulertzen ez eta, bera ere kantatzen ari zenari hainbeste erreparatu gabe ari zelako. Hemen ordea, desberdina dela dio, abestia gehiago bizitzen duela.

Lagorretako Sustraiez Blai jaialdian izango da Saioaren kantu berriak entzuteko hurrengo aukera ekainaren 28an. Uztailan eta abuztuan kanpora joango da osterara, Huescako PIR jaialdira lehenbizi eta Zaragozara gero, EXPO erakusketan hiru kontzertu eskaintzera. Agenda hori ikusita dator galdera, ea kanpoan Euskal Herrian baino gehiago jotzen ote duen, alegia. Ezetz dio, bere momentu onenean dagoela orain. Zerbaitengatik izango da. ■

